

BIZKAIKO EUSKAL
JOKO ETA KIROL
FEDERAKUNDEA

FEDERACIÓN
VIZCAINA DE JUEGOS
Y DEPORTES VASCOS



LAN ESKAINTZA

BIZKAIAN SOKATIRA LANDUZ PROGRAMA

- **Lan eskaintza:** Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak, Bizkaian Sokatira Landuz programaren garapena eta sokatiraren harrobia indartzeko, lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesua jarriko du martxan.
- **Lanaldia:** %50eko jardunaldia.
- **Eskatzen diren baldintzak:**
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua.
 - Sokatiraren inguruko ezagutza eta esperientzia.
 - Euskara: C1 maila.
 - B motako gidabaimena.
- **Lanpostua:**
 - Lanpostuaren eginkizun nagusia Bizkaian Sokatira Landuz programari eta Eskola Kirolaren esparruan sokatiraren sustapenari dagozkion programazio, koordinazio, dinamizazio eta garapen eginkizunak aurrera eramatea izango da. Bere lanpostuaren barruan, sokatiraren sustapenarekin, Eskola Kirolarekin eta Federakundearen jarduerarekin lotutako eginkizunak beteko ditu.
- **Baloratuko diren merituak:**
 - Esatari lanak egiteko gaitasuna eta jarrera, bereziki Eskola Kiroleko jardunaldietan.
 - Sokatiran kirolari, entrenatzaile edo monitore gisa izandako esperientzia.
 - Sokatiraren teknika, entrenamendu eta araudiaren ezagutza.

- Eskola Kirolaren arloko ezagutza eta esperientzia.
- Haur eta gazteekin kirol-jarduerak dinamizatzen izandako esperientzia.
- Herri Kiroletako I. mailako titulazioa izatea edo prestakuntza hori egiteko prest egotea.
- Herri Kirolen inguruko ezagutza.
- Antolakuntza, autonomia eta talde-lanerako gaitasuna.

- **Curriculumak aurkezteko epea eta e-maila:**

- eskolakirola@herrikirolakbizkaia.eus
 - E-mailean, adierazi **Bizkaian Sokatira Landuz programarako** interesa dela.
- irailak 15.

Bilbon 2026ko abuztuaren 21ean

Juan Miguel Ranero Alvarez
Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeko presidentea


